



Epearen amaiera 22/07/07

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Durangoko Udala

Udal Bide-Sistema Orokorra (UB-SO) aldatzea

Durangoko Udalbatzak, 2022ko maiatzaren 25ean egindako ohiko Osoko Bilkuran, Lurralde Batzordearen 2022ko maiatzaren 17ko proposamenari ekinez, eta hirigintza eta lurzoruaren gaineko, ekainaren 30eko, 2/2006 Legearen 90.5 Toki Araubidea arautzen duen, apirilaren 2ko, 7/1985 Legearen 22.1.c) artikulua ematen dion eskumena erabiliz, gehiengo absolutuaren botoaz (Toki Araubidea arautzen duen, apirilaren 2ko, 7/1985 Legearen (47.2,II), artikulua), beste zenbaiten artean, honako akordioa hartu zuen:

*Lehena:* Durangoko Plangintzako Arau Subsidiarioek UE-2, UE-10 eta UE-11 antolamendu-eremuetan sortutako Bide Sistema Orokorren (UB-SO) aldaketa hasieran onartzea, 2022ko apirileko proposamenarekin eta 2018ko martxoko Esparru Dokumentu Estrategikoarekin bat etorritz.

*Bigarrena:* Agiri hori jendaurrean jartzea hilabete batean (1), Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz eta Berria, Deia, Udalbatzaren ediktu-taula eta Gardentasun Atarian argitaratuz, espedientea Udal honetako Bulego Teknikoan aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izateko. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90.5 artikulua.

Durangon, 2022ko maiatzaren 27an. —Alkatea, Ima Garrastatxu Urbaneja